



# GIZARTE EKONOMIAREN ESTADÍSTIKA 2012 ETA 2013KO AURRERAPENA

2014ko uztailaren 2a

*Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Estatistika Organo  
Espezifikoa, Ikertalderekin lankidetzan*





## SARRERA

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Estatistika Organo Espezifikoa, Ikertalderekin lankidetzan, Gizarte Ekonomiaren hamargarren Estatistika egin du. Estatistika-eragiketa honen helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) ekonomia-sarearen testuinguruan Gizarte Ekonomiaren neurriak eta ezaugarriak zehaztea, eta aurreko urteen aldean zer-nolako bilakaera izan duen adieraztea.

Dokumentu honek Gizarte Ekonomiaren magnitude estatistiko nagusiak aurkezten ditu, lau ataletan.

- Lehen atalean, Gizarte Ekonomiaren Forma Klasikoek (GEFK) 2010-2012 biurtekoan izandako bilakaera ikus daiteke. Kategoria horretan, kooperatibak, lan-sozietate anonimoak (LSA) eta lan-sozietate mugatuak (LSM) daude. Establezimendu-kopuruaren eta enpleguaren bilakaeran jartzen da arreta, baita magnitude ekonomiko nagusien aldaketetan ere (sortutako BEGd-a, esportazioen portaera, produktibitate-ratioak, etab.). Aldagai horiek sektorearen, lurraldearen eta forma juridikoaren arabera aztertzen dira.
- Bigarren atalean, Gizarte Ekonomiaren kontuen 2013ko aurrerapenaren emaitzak aurkezten dira. Horri esker, kooperatibek eta lan-sozietateek etorkizunik hurbilean zer portaera izan dezaketen aurreikus daiteke.
- Hirugarren atalean, Gizarte Ekonomia osatzen duten enpresek azken urteetan krisi ekonomikoari aurre egiteko edota beren antolaketa- eta estrategia-kudeaketa hobetzeko estrategiak eta tresnak aztertzen dira.
- Laugarren atalean, Gizarte Ekonomiaren Forma Berriei (GEFB) heltzen zaie. Gizarte Ekonomiaren atal berri hori osatzen duten enpresei eta erakundeei buruzko oinarritzko datu batzuk ematen dira. Hona hemen enpresa eta erakunde horien tipologia: fundazioak, onura publikoko elkarteak, enplegu-zentro bereziak, gizarteratze-enpresak, eraldaketarako nekazaritza-sozietateak (ENS), arrantza-kofradiak eta borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeak (BGAE).

Hasieran, dokumentuan, Gizarte Ekonomiaren 2012ko Estatistikaren eta 2013ko Aurrerapenaren emaitza nagusiei buruzko azterketa sintetikoa egiten da. Eranskin estatistikoak aukera ematen du eragiketaren emaitza estatistikoetan zehatz-mehatz sakontzeko.



## EMAITZA NAGUSIAK

---






## I. GIZARTE EKONOMIAREN FORMA KLASIKOAK (GEFK), 2012

### 2010tik 2012ra bitartean, Gizarte Ekonomiako enpleguak behera egin zuen

#### 1. 2010-2012 biurtekoan, Gizarte Ekonomiako enpleguak behera egin zuen

2010-2012 biurtekoan, nabarmen jaitsi zen enplegua EAeko Gizarte Ekonomiaren forma klasikoetan<sup>1</sup>. 59.915 lanpostu zeuden 2010ean, eta 55.809 lanpostu 2012an.

EAE-KO GIZARTE EKONOMIAKO ENPLEGUAREN BILAKAERA, 1994-2012



#### 2. 2006tik aurrera enplegua txikitzeko hasiko prozesua luzatzen da, eta 2000-2006 aldiko aurrerapen gehienak bertan behera geratu dira

2006tik aurrera, Gizarte Ekonomiako enpleguak joera negatiboa izan du, eta 2010-2012 biurtekoko beherakadak joera hori areagotzen du. Hain zuzen, estatistikak erregistratutako enplegu-maila handiena lortu zen 2006an; guztira, 63.480 lanpostu zeuden.

Gainera, 2008tik aurrera, enpleguaren beheranzko joera areagotu egiten da. 2006tik 2008ra bitartean, % 1,4 jaitsi ondoren, % 4,3 jaitsi da 2008tik 2010era bitartean, eta % 6,9 2010etik 2012ra bitartean<sup>2</sup>.

<sup>1</sup> Gizarte Ekonomiaren forma klasikoetan, kooperatiben eta lan-sozietateen sektoreko enpresak eta establezimenduak daude.

<sup>2</sup> Gizarte Ekonomiaren Estatistika oso espezifiko da, eta beraz, enpleguaren dinamikaren emaitzen azterketa ez dator zehazki bat enpresen bilakaerarekin berarekin (itxierak, irekierak, langile-kopuruaren hazkundeak edo beherakadak, etab.), eta enpresak azterketaren esparru formalean sartzeko eta irteteko prozesuak ere adierazten ditu. Ildo horretan, aurreko urteetatik hautematen da lan-sozietateak merkataritza-sozietate bihurtzeko joera nabarmena dagoela, eta horrek eragina du Gizarte Ekonomiako enplegu-bolumenean. 2010-2012 denboraldia kontuan hartuta, ikus daiteke enplegu-beherakada lan-sozietate bat merkataritza-sozietate bihurtzearekin lotuta dagoela, neurri batean; izan ere, lan-sozietate horrek 2.000 lanpostu baino gehiago ditu. Lan-sozietate horren kasua alde batera utziz gero, kooperatiba eta lan-sozietateetako enplegua % 3 txikitu zen 2010-2012 denboraldian. Beraz, faktore hori aintzat hartzen badugu, 2010-2012 denboraldiko enplegu-galera apur bat txikiagoa izango litzateke 2008-2010 denboraldikoa baino.

Oro har, sektoreak bere enpleguaren % 12,1 galdu du 2006tik 2012ra bitartean; izan ere, lanpostu-kopurua duela hamarkada bateko mailetara hurbildu da, 2000ko 54.259 lanpostuak baino apur bat gehiago baitira. Hortaz, azken urteetan, oparoaldi ekonomikoan sortutako enplegu garbiaren zati handi bat desagertzen da. 2006tik 2012ra bitartean, suntsitutako –edo merkataritza-sozietateetara joandako– enplegu garbiaren magnitudea 7.671 lanpostukoa da; alegia, Gizarte Ekonomiak 2000tik 2006ra bitartean sortutako lanpostu garbien % 83,2.

### 3. Gizarte ekonomiak pisua galtzen du euskal ekonomian


Azpimarratu behar da 2006tik aurrera Gizarte Ekonomiako enpleguaren bilakaera, eskuarki, okerragoa izan zela Euskadiko ekonomiakoa baino.

Krisialdiaren lehen uneetan, 2006tik 2008ra bitartean, Gizarte Ekonomia enplegua galtzen hasi zen (-% 1,4), eta Euskadiko ekonomiak, berriz, gorantz jarraitzen zuen; hain zuzen, % 2,7 handitu zen EAEko okupazio-datuetan. Okupazio- eta enplegu-galerak 2008tik 2010ra bitartean orokortu ziren, baina pixka bat handiagoak ziren Gizarte Ekonomian: % 4,3 txikitu zen Gizarte Ekonomiako enplegua, eta EAEko enplegu orokorra, berriz, % 3,9.

2010etik 2012ra bitartean, joera horrek bere horretan jarraitu zuen: Gizarte Ekonomian, enplegua % 6,9 txikitu zen, eta EAEko biztanleria landuna, berriz, % 4,7<sup>3</sup>.

Bilakaera hori dela eta, Gizarte Ekonomiako enpleguak euskal ekonomian zuen garrantzi erlatiboa txikitu egin da. 2002an, Gizarte Ekonomiak EAEko ekonomiako enpleguaren % 6,8 zuen, baina 2004-2006 denboraldian, % 6,6 zuen, 2008-2010 denboraldian % 6,3, eta 2012an % 6,2.

**GIZARTE EKONOMIAKO ENPLEGUAREN GARRANTZI ERLATIBOAREN BILAKAERA EAE-KO EKONOMIAN, 1994-2012 (EAEko enpleguaren %-a).**



<sup>3</sup> Dena den, aipatu behar da 2010-2012 denboraldiak ekarri zuela benetako joera-aldaketa. Ildo horretan, denboraldi horretan, beherakada apur bat txikiagoa izango zen Gizarte Ekonomian; izan ere, merkataritza-ekonomiara igarotako sozietateak kontuan hartu gabe (2. oharrean adierazitakoaren arabera), enplegua % 3 txikitu zen. Hortaz, 2010etik 2012ra bitartean, beherakada txikiagoa izango zen EAEko sektore ekonomikoetan oro har gertatutakoa baino.






#### 4. 2010-2012 biurtekoko enplegu-galera zerbitzu-sektorerara hedatzen da, baina oraindik ere, erabakigarria da industrian

2010era arteko bilakaera onaren aldean, **2010-2012 biurtekoko enplegu-galera zerbitzu-sektorerara hedatu zen**. Biurteko horretan, hirugarren sektoreko enplegua % 10,3 txikitu zen Gizarte Ekonomiaren forma klasikoetan.

**GIZARTE EKONOMIAKO INDUSTRIAKO ETA HIRUGARREN SEKTOREKO ENPLEGUAREN BILAKAERA (2008-2010 eta 2010-2012 biurtekoetako hazkunde-tasak)**



**GIZARTE EKONOMIAKO 2010-2012 DENBORALDIKO ENPLEGUAREN SEKTORE-BANAKETA (kopuru absolutuak eta % bertikalak)**


	2010		2012	
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.
Lehen sektorea	179	0,3	117	0,2
Industria	26.510	44,2	25.727	46,1
Eraikuntza	2.055	3,4	2.000	3,6
Zerbitzuak	31.171	52	27.966	50,1
<b>GUZTIRA</b>	<b>59.915</b>	<b>100</b>	<b>55.809</b>	<b>100</b>

Zerbitzu-sektoreko enplegu-beherakada joera-aldaketa handia izan zen, 2008-2010 biurtekoko bilakaera positiboarekin alderatuta; hain zuzen ere, biurteko hartan, lanpostu-kopurua % 2,7 handitu zen. Hala ere, adierazi beharra dago Gizarte Ekonomiako hirugarren sektorean lanpostu asko igaro zirela merkataritza-sozietateetara, eta horrek eragin zuela bilakaera negatiboa, neurri handi batean<sup>4</sup>. Izan ere, 2010etik 2012ra bitartean zerbitzu-sektorean galdutako 3.205 lanpostuen % 85,6 sozietate-birkonfigurazio horrekin lotzen dela. Faktore hori kontuan hartu gabe, sektoreko enplegu-beherakada % 1,6koa izango zen, besterik ez.

<sup>4</sup> 2010etik 2012ra bitartean, lan-sozietateak merkataritza-sozietate bihurtzean, 2.912 lanpostu galdu ziren Gizarte Ekonomian. Lanpostu horietako gehienak zerbitzu-sektorean galdu ziren (2.748 lanpostu galdu ziren, eta industrian eta eraikuntzan, berriz, 148 eta 16, hurrenez hurren).

Edonola ere, 2010etik 2012ra bitartean hautemandako dinamikak hau ekarri zuen berekin: Gizarte Ekonomiaren garrantzia gero eta txikiagoa zen EAeko zerbitzu-sektorean. Gizarte-sektorearen parte-hartzea % 4,9tik % 4,5era jaitsi zen gizarteko hirugarren sektorean; 2008tik, ehunekorik txikiena izan zen.

#### GIZARTE EKONOMIAREN GARRANTZI ERLATIBOA EAE-KO EKONOMIAN (Enpleguaren pisu erlatiboa), 2008-2012



**Industria-enpleguari** dagokionez, **joera negatiboa izaten jarraitzen zuen**. A priori, industria-enpleguan enplegu-beherakada txikiagoa zen zerbitzu-sektorean baino (hurrenez hurren, -% 3 eta -% 10,3). Hala ere, titulartasun juridikoaren aldaketekin erlazioz hartutako faktorea kontuan hartzen ez bada, ikus daiteke industria-sektoreak enplegu-galera erlatibo handiagoa izan zuela hirugarren sektoreak baino (hurrenez hurren, -% 2,4 eta -% 1,6). Hala ere, enplegu-beherakada askoz txikiagoa izan zen 2008tik 2010era bitartekoa baino (biurteko hartan, enplegua % 11,4 jaitsi zen).

Lanpostuak suntsitzeko erritmoa moteldu bazen ere, industria-enpleguaren etengabeko beherakadak eragin handia izan zuen Gizarte Ekonomiako azken urteetako enpleguaren bilakaeran. 2006tik, industriak 6.623 lanpostu galdu zituen 2012ra arte; hau da, % 20,5eko beherakada gertatu zen. Dinamika hori askoz negatiboagoa izan zen hirugarren sektorean jasotakoa baino. 2006tik 2012ra bitartean, 802 lanpostu garbi galdua, sektoreak lanpostu guztien % 2,8 galdu zituen denboraldi hartan<sup>5</sup>.

Alabaina, Euskadiko Gizarte Ekonomiako industriak hobeto eutsi zion krisiari Euskadiko sektoreak baino. Horren ondorioz, Gizarte Ekonomiako industria-arloaren garrantzi erlatiboak gora egin zuen. Horrenbestez, 2010etik 2012ra bitartean, Gizarte Ekonomiako industriak EAeko industria-okupazioan zeukan pisu erlatiboa % 11,8tik % 12ra igo zen, eta 2008an, % 12,1ekoa zen.


<sup>5</sup> Hain zuzen ere, Gizarte Ekonomiako hirugarren sektorean, 2012ko enplegu-maila handiagoa zen 2006koa baino. 2012an merkataritza-sozietate bihurtutako lan-sozietateen eragina alde batera utzita, egiaztatu daiteke Gizarte Ekonomiako hirugarren sektoreko enpleguak gora egin zuela 2006tik 2012ra; izan ere, ia 2.000 lanpostu garbi gehiago zeuden 2012an, 2006an baino % 6,7 gehiago.



Gainera, pisu erlatibo hori handiagoa zen Gizarte Ekonomiako industria-enpresek Euskadiko industriako BPGan zeukaten parte-hartzeari dagokiona baino; hain zuzen, % 9,9koa zen 2012an. Hortaz, bigarren sektoreko kooperatibetan eta lan-sozietateetan, produktu-unitate bakoitzak ahalmen erlatibo handiagoa zeukan enplegua sortzeko, EAEko industria osoan baino.

Bestalde, 2010-2012 denboraldian Gizarte Ekonomiako zerbitzu-sektoreak enplegu-beherakada handiagoa izan zuenez, kooperatibek eta lan-sozietateek industria-espezializazioa berreskuratu zuten. Horrenbestez, 2012an, industria-enplegua Gizarte Ekonomiako enpleguaren % 46,1 zen; hau da, Euskadiko ekonomiako enplegu-ehunekoaren bikoitza (% 23,7).

#### ENPLEGUAREN SEKTORE-BANAKETAREN GARRANTZIA EAE-KO EKONOMIAN ETA GIZARTE EKONOMIAN, 2012 (arlotan bakoitzeko enplegu osoaren %-a)



*Oharra: Alderaketa egiteko datuak Eustaten 2012ko Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkestatik (BJA) atera dira. Urteko okupazioaren batez bestekoa.*

### Beheranzko joera 2013an eten zen, baina goranzko susperraldirik gabe

Gizarte Ekonomiako enpresek 2013rako aurkeztutako emaitzen aurrerapeneko aurreikuspenetan, nolabaiteko joera-aldaketa gertatuko da enplegua gutxitzeko prozesuan. Hala ere, egindako kalkuluaren arabera, enpleguaren % 0,1 baino ez da berreskuratuko, 2012an 55.809 lanpostu izatetik 2013an 55.851 izatera. Horrenbestez, 2013an, enplegua egonkortuko da, baina ez da susperraldirik gertatuko<sup>6</sup>.

<sup>6</sup> Testuinguru horretan, gogoratu behar da 2013aren amaieran Gizarte Ekonomiako enpresa handietako baten konkurtso-prozesua hasi zela. Prozesu hori 2013ko azaroan hasi zenez, galdutako enpleguak ez du eraginik izan 2013ko Aurrerapenean erregistratutako guztizko lanpostu-kopuruan, eta ekitaldi hartan urtekotutako enplegu osoa hartzen da kontuan.

## Enplegu beherakada ez da homogeneouski banatzen

### 5. Gizarte Ekonomiako arlo guztietan soldatapeko lanpostu mugagabeak galdu zirela da aipatzekoa, eta galera hori handiagoa izan zela lan-sozietateetako enplegu-modalitate guztietan

Enpleguaren bilakaerak oso bestelako dinamikak izan zituen 2010etik 2012ra bitartean, langileen eta enpresaren arteko kontratu-harremanaren arabera. Alderdi positiboan, nabarmendu behar da kooperatibetan sozietate-enplegua berreskuratu egin zela, % 1eko hazkundearekin. Horrez gain, enpresa horietan, aldi baterako langileen kopurua nabarmen handitu zen (+% 25,4).

Alderdi negatiboari dagokionez, azpimarragarria da langile mugagabeen kopurua % 34,5 txikitu zela Gizarte Ekonomian eskuarki. Enplegu-beherakada hori oso nabarmena izan zen kooperatiben sektorean (-% 24,3), baina askoz txikiagoa lan-sozietateetan gertatutakoa baino (-% 55,7). Lan-sozietateetan, aldi baterako enpleguan zein sozietate-enpleguan gertatu da galera (hurrenez hurren, -% 53,6 eta -% 8,6).

#### ENPLEGU-BANAKETA FORMA JURIDIKOAREN ETA KONTRATU-MOTAREN ARABERA EAE-KO GIZARTE EKONOMIAN, 2006-2012 (kopuru absolutuak)

	Bazkideak	Soldatapekoak	Finkoak	Aldi baterakoak
<b>KOOP.ELK.</b>				
2006	34.746	15.405	4.999	10.406
2008	34.710	15.649	6.534	9.115
2010	33.895	14.197	8.256	5.941
2012	34.241	13.703	6.251	7.451
<b>Lan-sozietateak</b>				
2006	7.160	6.168	2.885	3.283
2008	7.159	5.098	3.364	1.734
2010	5.471	6.353	3.985	2.368
2012	5.001	2.865	1.767	1.098
<b>Lan-sozietate anonimoak</b>				
2006	4.142	4.088	1.966	2.122
2008	4.441	3.010	2.288	722
2010	2.592	4.828	3.060	1.768
2012	2.387	1.638	1.096	542
<b>Lan-sozietate mugatuak</b>				
2006	3.018	2.080	919	1.161
2008	2.718	2.088	1.076	1.012
2010	2.879	1.525	925	600
2012	2.614	1.227	671	556
<b>GUZTIRA</b>				
2006	<b>41.906</b>	<b>21.573</b>	<b>7.884</b>	<b>13.689</b>
2008	<b>41.869</b>	<b>20.747</b>	<b>9.898</b>	<b>10.849</b>
2010	<b>39.366</b>	<b>20.550</b>	<b>12.241</b>	<b>8.309</b>
2012	<b>39.242</b>	<b>16.568</b>	<b>8.018</b>	<b>8.549</b>




## Enplegua txikitzen bada ere, establezimendu-kopurua handitu egiten da

### 6. 2010etik 2012ra bitartean, establezimendu-kopurua handitu egin zen

Enplegu-datuek beherakada izan bazuten ere, establezimendu-kopuruak gora egin zuen 2010etik 2012ra bitartean. 2006an, establezimendu-kopurua handiena izan zen: 3.096 establezimendu. Hurrengo urteetan, 3.000 establezimendu baino gutxiago egon ziren Gizarte Ekonomian; esate baterako, 2010ean, 2.997 establezimendu zeuden. 2012an, berriz, 3.078 zeuden.

**EAE-KO GIZARTE EKONOMIAKO ESTABLEZIMENDUEN BILAKAERA, 1994-2012**



### 7. Enpleguaren beheranzko dinamikarekiko kontrasteak adierazten du enpresa txikien eta establezimendu txikien pisua handiagoa zela

Establezimendu-kopuruak portaera hobea izan zuen enpleguak baino, eta hori lotuta omen dago lantoki txikiek 2010-2012 biurtekoan izandako dinamika positiboarekin. Izan ere, 5 langile baino gutxiago zituzten establezimenduen kopurua % 8,8 handitu zen denboraldi hartan.

**LANPOSTU-KOPURUAREN BILAKAERA GIZARTE EKONOMIAKO ENPRESEN TAMAINAREN ARABERA, 2010-2012**

	Lanpostuak 2010	Lanpostuak 2012	Bilakaera 2010 - 2012
5 langile edo gutxiago	3.639	3.960	8,8
6-15 langile	4.636	4.472	-3,5
16-50 langile	8.801	6.638	-24,6
51-100 langile	6.064	6.117	0,9
101-200 langile	5.182	5.748	10,9
201-500 langile	8.101	7.229	-10,8
500 langile baino gehiago	23.492	21.646	-7,9
<b>GUZTIRA</b>	<b>59.915</b>	<b>55.809</b>	<b>-6,9</b>

Neurri handi batean, kooperatiba txikiak sortzearen dinamismo handiagoagatik azal daiteke hori, erregulazio malguago baten eta mikroenpresa horiek sustatzeko laguntza-programen esparru batean baitaude. Izan ere, establezimendu-kopuruaren hazkundera kooperatiben sektorean gertatu zen bakarrik; hain zuzen, 2010ean, 2.029 establezimendu zeuden sektorean, eta 2012an, berriz, 2.194. Sektorearen barruan, kooperatiba handiagoen bolumena txikitzeko testuinguru batean, 2010ean, bost langileko edo gutxiagoko 612 establezimendu kooperatibo zeuden, eta 2012an, ordea, 900.

#### ESTABLEZIMENDU KOOPERATIBOEN KOPURUAREN BILAKAERA TAMAINAREN ARABERA, 2010-2012

	Establezimenduak 2010	Establezimenduak 2012	Bilakaera 2010 – 2012 (%)
5 langile edo gutxiago	612	900	47,1
6-15 langile	299	303	1,3
16-50 langile	231	181	-21,6
51-100 langile	92	94	2,2
101-200 langile	126	60	-52,4
201-500 langile	206	128	-37,9
500 langile baino gehiago	463	528	14,0
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.029</b>	<b>2.194</b>	<b>8,1</b>

Behatutako joeren ondorioz, Gizarte Ekonomiako enpresen eta establezimenduen tamainari buruzko adierazleak gutxitu egin ziren. Horrenbestez, 2010etik 2012ra bitartean, enpresa bakoitzeko establezimendu-kopurua txikitu egin zen (1,38tik 1,31ra), eta enpresa bakoitzeko lanpostuen batez besteko kopurua (27,6tik 23,8ra), eta establezimendu bakoitzeko enplegu-bolumena (20,0tik 18,1era oro har, eta 23,8tik 21,9ra kooperatibetan).

#### GIZARTE EKONOMIAKO ENPRESEN TAMAINAREN ADIERAZLEAK, 2010-2012

	2010	2012
Enpresa bakoitzeko establezimendu-kopurua	1,38	1,31
Enpresen batez besteko tamaina (lanpostuak)	27,6	23,8
Establezimenduen batez besteko tamaina (lanpostuak)	20,0	18,1

Gizarte Ekonomiako enpresen eta establezimenduen batez besteko tamaina txikitu bazen ere, ekonomiako sektore horren tamaina nabarmen handiagoa zen, orduan ere, Euskadiko enpresa-ehunaren batez besteko tamaina baino. 2012an, kooperatiben eta lan-sozietateen batez besteko tamaina 23,8 lanpostukoa zen; hau da, Euskadiko enpresena (5,5 lanpostu/enpresa) baino ia lau aldiz handiagoa. Gizarte Ekonomiako establezimenduen batez besteko tamaina ere (18,1 lanpostu establezimendu bakoitzeko) nabarmen handiagoa da Euskadiko ekonomiakoa baino (4,9 lanpostu establezimendu bakoitzeko).



### GIZARTE EKONOMIAKO ETA EAE-KO EKONOMIAKO ESTABLEZIMENDU ETA ENPRESEN TAMAINA, ENPLEGUAREN ARABERA, 2012

	Establezimenduen batez besteko tamaina	Enpresen batez besteko tamaina
Gizarte Ekonomia, 2012	18,1	23,8
EAEko ekonomia, 2012	4,9	5,5

*Oharra: EAEko datuak Jarduera ekonomikoen gidazerrendatik hartu dira. Eustat, 2012.*

## Enplegu-beherakada sektoreko fakturazioa txikitzearekin eta errentagarritasun-adierazleak okerragotzearekin dago lotuta


### 8. Gizarte Ekonomiako fakturazio orokorra txikitu egiten da, eta balio erantsi gutxiago sortzen da

2010etik 2012ra bitarteko enplegu-beherakada eta fakturazio-beherakada oso estuki lotuta daude. Biurteko hartan, Gizarte Ekonomiaren fakturazioa % 3,3 txikitu zen. Beherakada hori adierazgarria izan zen, 2008-2010 denboraldiko % 12,2koa luzatu baitzuen.

2013ko Aurrerapeneko datuek adierazten dute fakturazioa txikitzeko prozesua amaitu egingo dela, baina, oraindik ere, ez dirudi susperraldi handirik gertatuko denik; hain zuzen, 2012an eta 2013an salmentak % 0,3 handituko direla aurreikusten da.

Susperraldi hori egiaztatuko balitz ere, 2013rako aurreikusitako 8.304,5 milioiko fakturazioa % 19,5 txikiagoa izango litzateke Gizarte Ekonomiak 2007koa baino (10.314,9 milioi). 2006-2008 denboraldiko batez besteko fakturazioaren<sup>7</sup> eta 2012-2013 denboraldiko batez besteko fakturazioaren artean, % 15,9ko beherakada dago.<sup>8</sup>

### FAKTURAZIOAREN BILAKAERA, 2006-2013 (milaka eurotan)



\* Urte bakoietan, fakturaturako bolumena enpresek aurreko urtean egindako aurreikuspenari dagokio.

<sup>7</sup> 2006., 2007. eta 2008. ekitaldietako batez besteko fakturazioa.

<sup>8</sup> 2012. eta 2013. ekitaldietako batez besteko fakturazioa.

Fakturazioa txikitzearekin batera, balio erantsi gordina (BEGd-a) ere txikitu zen. Kasu honetan, 2012. ekitaldiko BEGd-a % 6,4 txikiagoa izan zen 2010ean, termino arruntetan. Atzerakada hori oso antzekoa izan zen bi sektore handietan (-% 6,1 industrian eta -% 6,0 zerbitzu-sektorean). Lehen sektorearen eta eraikuntza-sektorearen kasuan, BEGd-aren beherakada % 18,2koa izan zen.

#### BEGd-AREN SEKTORE-HAZKUNDEA 2010-2012 DENBORALDIAN (prezio arruntetan)

Sektoreak	Hazkunde-tasa
Industria	-% 6,1
Zerbitzuak	-% 6,0
Lehen sektorea + Eraikuntza	-% 18,2
<b>GUZTIRA</b>	<b>-% 6,4</b>

BEGd-ak sektore horietan antzeko dinamika izan bazuen ere, enplegu-beherakada absolutua handiagoa izan zen zerbitzu-sektorean besteetan baino, eta horrek zuzeneko eraginak izan zituen 2010-2012 biurtekoko itxurazko produktibitatean. Alde batetik, hirugarren sektorean, 2010etik 2012ra bitartean, produktibitateak gora egin zuen langile-kopurua txikitzearen ondorioz (% 4,7). Aitzitik, industria-enpresetan enplegua suntsitzeko prozesuari eusteko ahaleginaren ondorioz, langile bakoitzaren produktibitatea % 3,2 txikitu zen 2010-2012 biurtekoan.

#### GIZARTE EKONOMIAKO SEKTOREEN ITXURAZKO PRODUKTIBITATEAREN BILAKAERA, 2010-2012 DENBORALDIAN (BEGd-a: euroak/langile. Prezio arruntak)

	2010	2012	2010-2012ko aldaketa
Industria	54.773	53.001	-% 3,2
Eraikuntza	33.895	29.220	-% 13,8
Zerbitzuak	41.648	43.620	% 4,7
<b>GUZTIRA</b>	<b>47.126</b>	<b>47.364</b>	<b>% 0,5</b>

Bestalde, Gizarte Ekonomiako enpresetan, 2010-2012 denboraldiko BEGd-aren beherakada erlatiboa handiagoa izan zen Euskadiko ekonomian baino. Horrek esan nahi du enpresa horiek Euskadiko BPGari egiten dioten ekarpena txikitu egin zela; hain zuzen, 2010ean, % 4,8ko parte-hartze erlatiboa izan zuten, eta 2012an, berriz, % 4,5ekoa.

Beheranzko joera hori are nabarmenagoa izan zen hirugarren sektorean; hain zuzen, sektoreko BPGan zuen parte-hartzea % 3,3koa izan zen 2010ean, eta % 3koa 2012an. Gizarte Ekonomiako industriak, ordea, Euskadiko ekonomian zuen pisuari eutsi zion: EAEko industriako BPGari % 9,9ko ekarpena egin zion, 2010eko % 10a baino hamarren bat txikiagoa.






**GIZARTE EKONOMIAREN EKARPENA SEKTOREKO BARNE PRODUKTU GORDINEAN. 2010-2012  
BIURTEKOKO ERREFERENTZIA KONPARATIBOA**

	2010	2012
Industria	10,0	9,9
Eraikuntza	1,5	1,4
Zerbitzuak	3,3	3,0
<b>GUZTIRA</b>	<b>4,8</b>	<b>4,5</b>

**9. Orobat, irabaziei eta cash-flowari buruzko adierazleak txikitu egiten dira, baita Gizarte Ekonomiaren Fondo Propioak ere**

Fakturazio-beherakadak eragin negatiboa du irabaziei eta *cash-flowari* buruzko adierazleetan. Horrenbestez, sektoreko emaitza ekonomikoak gutxitzeko joerak bere horretan jarraitzen du: 2008an, 248,2 milioi euroko irabaziak lortu zituen, eta 2010ean eta 2012an, 99,7 eta 79,3 milioi, hurrenez hurren. Aztertzen ari garen biurtekoan, *cash-flowa* ere nabarmen txikitu zen: 2008an, 1.040,6 milioi eurokoa izan zen; 954,7 milioikoa 2010ean; eta 932,3 milioikoa 2012. ekitaldian.

**GIZARTE EKONOMIAREN EMAITZA EKONOMIKOEN (IRABAZIAK) ETA CASH-FLOWAREN  
BILAKAERA, 2010-2012 (kopuru absolutuak, milaka eurotan)<sup>9</sup>**



Irabaziak eta *cash-flowa* txikitzean, Gizarte Ekonomiaren Fondo Propioak ere txikitu ziren aldi berean. Hain zuzen ere, Gizarte Ekonomiaren Fondo Propioen magnitude orokorra % 3,6 gutxitu zen 2010etik 2012ra bitartean.

<sup>9</sup> 2008. eta 2010. ekitaldietako emaitzen eta *Cash Flowaren* partidekin lotutako zenbatekoak aldatu egin dira, 2012. ekitaldiko ohiz kanpoko partiden esleipenaren ondorioz (67., 69. eta 63. kontuak). Ohiz kanpoko partida horiek atzeraeginezko ondorioarekin periodifikatuko dira 2008. ekitaldira arte (hau da, finantza-krisiaren aurreko ekitaldira arte).

Zerbitzu-sektorea izan zen kaltetuena. Hartan, Fondo Propioak % 12,3 gutxitu ziren, neurri handi batean erreserba-fondoak berresleitu zirelako sektoreko enpresak onbideratzeko eta indartzeko<sup>10</sup>. Industriak, ostera, bere kapitalizazio- eta zuzkidura-maila indartu zuen; hain zuzen, industria-sektoreko Fondo Propioak % 11,4 handitu ziren.

**GIZARTE EKONOMIAREN FONDO PROPIOEN SEKTORE-BANAKETA, 2010-2012**  
(kopuru absolutuak milaka eurotan, % bertikalak)

	2010		2012	
	Euroak	% ber.	Euroak	% ber.
Lehen sektorea	6.276.220	0,1	6.219.052	0,1
Industria	2.179.586.578	36,8	2.428.715.928	42,5
Eraikuntza	57.892.158	1	50.949.517	0,9
Zerbitzuak	3.680.316.122 <sup>11</sup>	62,1	3.227.551.120	56,5
<b>GUZTIRA</b>	<b>5.924.071.078</b>	<b>100</b>	<b>5.713.435.617</b>	<b>100</b>

## Sektorearen beherakada lan-sozietateekin dago loturik, zalantzarik gabe

2010etik 2012ra bitartean, Gizarte Ekonomian, lan-sozietateen arloan gertatu zen okerragotze ekonomiko nagusia.

### 10. Lan-sozietate anonimoetan, enpleguaren beherakada handia gertatu zen

Lan-sozietateen egoerak okerrera egin izanaren lehen adierazlea 2010etik 2012ra bitarteko establezimendu-kopurua da (968 zeuden 2010ean, eta 884, 2012an). Joera horrekin batera, nabarmen gutxiagotu zen lanpostu-bolumena. Horrenbestez, kooperatiben sektorean enplegua egonkor samarra bazen ere (-% 0,4), lan-sozietateen kasuan, % 33,2 gutxitu zen. Lan-sozietate mugatuetan, beherakada % 12,4koa izan zen, eta lan-sozietate anonimoetan, berriz, % 45,5ekoa.

Gizarte Ekonomiak 2010etik 2012ra bitartean galdutako 4.106 lanpostuen % 94,8 lan-sozietateetan galdu zen; % 81,6 lan-sozietate anonimoetan gertatutako beherakadarekin lotuta dago.

<sup>10</sup> Zerbitzu-sektoreko zenbait adarretan, enpresen bat-egiteak gertatu ziren, eta hein handi batean, horrek azaltzen du Gizarte Ekonomiaren Fondo Propioak txikitu izana. Bat-egite horietako batzuk egiteko, aurreko ekitaldietan kontura pilatutako erreserba boluntarioen zati bat esleitu behar izan zen (erreserba boluntarioak Fondo Propioen osagai nagusia dira).

<sup>11</sup> Doitua, 2012. ekitaldiarekin alderatzeko.



**GIZARTE EKONOMIAKO LANPOSTU-KOPURUAREN BILAKAERA FORMA JURIDIKOAREN ARABERA, 2010-2012, (kopuru absolutuak eta % bertikalak)**

	2010		2012		%Δ12/10 (1)
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	
Kooperatibak	48.196	80,5	47.981	86,0	-0,4
Lan-sozietateak	11.720	19,6	7.828	14,0	-33,2
Lan-sozietate anonimoak	7.355	12,3	4.005	7,2	-45,5
Lan-sozietate mugatuak	4.365	7,3	3.823	6,8	-12,4
<b>GUZTIRA</b>	<b>59.915</b>	<b>100</b>	<b>55.809</b>	<b>100</b>	<b>-6,9</b>

(1) 2010etik 2012ra bitarteko kopuru absolutuekin lotutako portzentaje-aldaketa.

Adierazitako datuei erreparatuz gero, ikus daiteke 2008-2010 denboraldiko dinamika negatiboa asko aldatu zela; izan ere, denboraldi hartan, suntsitutako lanpostuen % 80 enpresa kooperatibetan galdu zen. Hala ere, lan-sozietateetan 2006tik gertatzen ari zen joerak bere horretan jarraitu zuela adierazten dute datuek. Izan ere, azken sei urteetan, enplegu-galera handia gertatu zen lan-sozietateetan; hain zuzen, 2006an, 13.313 lanpostu zituzten lan-sozietateek, eta 2012an, ordea, 7.828 (% 41,2ko beherakada). Kooperatiben sektoreak hobeto eutsi zion krisi ekonomikoari; 2006tik 2012ra bitartean, lanpostuen % 4,4 baino ez zen galdu.

Dena den, zehaztu beharra dago lan-sozietateek galdutako lanpostuen zati bat sozietate horietako batzuk Gizarte Ekonomiatik kanpoko merkataritza-sozietate bihurtzearen ondorioz galdu zela<sup>12</sup>.

## **Zailtasunak zailtasun, Gizarte Ekonomiaren kanpo-presentzia handitu egin zen**


### **11. Gizarte Ekonomiaren kanporako irekiera erlatiboaren maila handitu egin zen**

Enpleguaren eta fakturazioaren bilakaera negatiboa gorabehera, 2010etik 2012ra bitartean, kooperatibek eta lan-sozietateek osatutako ekoizpen-sareak kanpora irteteko joera handia izan zuen, esportazioen bilakaera positiboak adierazten duenez. 2012. ekitaldian, Euskadiko Gizarte Ekonomiaren esportazio-bolumena % 32,3koa izan zen fakturazioarekiko; hain zuzen, portzentajezko sei puntu handiagoa izan zen 2010ekoa baino (% 26,3).


<sup>12</sup> 2010etik 2012ra bitartean zerbitzu-sektoreko enpresa adierazgarriek forma juridikoa aldatu zuten, eta horrek neurri handiago batean azaltzen du lan-sozietateetan denboraldi hartan gertatutako beherakada (5.268 lanpostu 2010ean, eta 2.319 lanpostu 2012an). 2012an, Gizarte Ekonomiak 2.700 lanpostu baino zertxobait gehiago galdu zituen, lan-sozietate batzuk merkataritza-sozietate bihurtzean.

Kanpoko merkatuei dagokien fakturazioaren ehunekoa ere handitu zen kanpoko merkatuetan presentzia eraginkorra zuten enpresen kasuan: 2010ean % 54,1ekoa izan zen, eta 2012an, berriz, % 59,7koa. En las empresas exportadoras, se profundiza por tanto en la orientación dominante de la actividad hacia los mercados exteriores.

**GIZARTE EKONOMIAREN KANPO-MERKATUETARAKO IREKIERA-MAILAREN BILAKAERA**  
(esportazio-bolumena guztizko fakturazioarekiko), 1994-2012



**ENPRESA ESPORTATZAILEEN KANPO-MERKATUETARAKO IREKIERA-MAILAREN BILAKAERA**  
(esportazio-bolumena guztizko fakturazioarekiko), 2004-2012



**12. Kanporako irekiera handiagoaren ondorioz, esportazioen susperraldi absolutua gertatu zen, baina Europar Batasuneko salmenta-maila txikiagoa zen 2008an baino**

2008tik 2010era, bitartean, Gizarte Ekonomiak kanporako irekiera handia izan zen, baina, beren-beregi, enpresek barne-merkatuetan zuten fakturazioak beherakada erlatibo handiagoa izan zutelako. Dinamika negatibo hori enpresa esportatzaileek kanpo-merkatuetan egiten zuten salmentetara ere hedatu zen; hain zuzen, enpresa horien esportazioak % 7,2 jaitsi ziren.

2010etik 2012ra bitartean, berriz, nahiz eta barne-merkatuetako fakturazioaren beherakadak bere horretan jarraitu, enpresa esportatzaileek % 18,8 gehiago saldu zuten kanpo-merkatuetan. 2012an, enpresa horien esportazio-bolumen absolutua 2.673,3 milioi eurokoa izan zen, 2008koa baino handiagoa (2.425.6 milioi euro).


**BARNE-SALMENTEN ETA KANPO-SALMENTEN BILAKAERA, 2010-2012**

	2010	2012	%Δ12/10	kopuru absolutuak Δ12/10
<b>Fakturazio orokorra</b>	<b>8.563.275.439</b>	<b>8.283.006.345</b>	<b>-% 3,3</b>	<b>-280.269.094</b>
<b>EZ-esportatzaileen fakturazioa</b>	<b>4.403.768.701</b>	<b>3.806.223.169</b>	<b>-% 13,6</b>	<b>-597.545.532</b>
<b>Esportatzaileen fakturazioa</b>	<b>4.159.506.738</b>	<b>4.476.783.176</b>	<b>% 7,6</b>	<b>317.276.438</b>
a) Barne-salmentak	1.909.021.877	1.803.527.961	-% 5,5	-105.493.916
b) Kanpo-salmentak: Esportazioak	2.250.484.862	2.673.255.215	% 18,8	422.770.353
b.1. Esportazioak Europara	1.397.054.639	1.588.386.617	% 13,7	191.331.978
b.2. Esportazioak munduko gainerako lekuetara	853.430.223	1.084.868.598	% 27,1	231.438.375

Esportazioen hazkundearen ondorio nagusia hau da: enpresa esportatzaileen guztizko fakturazioa % 7,6 handitu zen 2010etik 2012ra bitartean. Horren aldean, kanpo-merkatuetara bideratuta ez zeuden enpresen salmentek % 13,6ko beherakada izan zuten. Gainera, enpresa esportatzaileen barne-salmenten beherakada erlatiboa txikiagoa izan zen.

Europar Batasunean egindako salmenten bilakaera aldatu egin zen, eta horrek eragin zuen esportazioen aurrerakada handia, kontuan hartuta Europar Batasuneko merkatua bereziki zaila dela, maila teknologiko eta lehiakor handiagoko enpresen ahalmen lehiakor handia baitute. Hain zuzen ere, 2008tik 2010era bitartean, Europarako esportazioek % 28,7ko beherakada izan zuten, eta 2010etik 2012ra bitartean, ostera, % 13,7 handitu ziren. Hala ere, merkatu horretan, 2012ko esportazio-bolumena (1.588,4 milioi euro) askoz txikiagoa zen artean ere 2008koa baino (1.959,9 milioi euro).

Munduko gainerako lekuetara egindako esportazioen goranzko joerak bere horretan jarraitu zuen, eta batez ere, horrek eragin zuen 2012ko esportazio-maximoa: 2010etik 2012ra bitartean, munduko gainerako lekuetara egindako esportazioak % 27,1 handitu ziren, eta beraz, jarraipena eman zitzaion 2008-2010 biurtekoko % 83,2ko gorakadari. 2008an, 465,7 milioi euroko esportazioak egin ziren munduko gainerako lekuetara, eta 2012an, berriz, 1.084,9 milioi eurokoak izan ziren.

Portzentajezko terminoetan, aldaketa horien ondorioz, Euskadiko Gizarte Ekonomiak Europar Batasunera egindako esportazioen garrantzia gero eta txikiagoa da: 2008an % 80,8koa, 2010ean % 62,1koa, eta 2012an % 59,4koa. Asiaren eta Hego Amerikaren garrantzia gero eta handiagoa da, eta beraz, sektoreak haietara egiten dituen esportazioek ere gora egiten dute. 2008an, eskualde horien parte-hartze orokorra % 14,7koa izan zen, eta 2010ean eta 2012an, % 25,8koa eta % 27,5koa, hurrenez hurren. Gainerako eskualdeei (Estatu Batuak barne) dagokienez, esportazioak 2008ko % 4,5etik 2012ko % 13,1era igaro ziren.

**ESPORTAZIO-BOLUMENA ESKUALDEAREN ARABERA ETA BILAKAERA, 2008, 2010 eta 2012**  
(kopuru absolutuak eta % bertikalak)

	<b>Abs. 2008</b>	<b>% ber.</b>	<b>Abs. 2010</b>	<b>% ber.</b>	<b>Abs. 2012</b>	<b>% ber.</b>
Europa	1.959.861.909	80,8	1.397.054.639	62,1	1.588.386.617	59,4
Asia	189.287.966	7,8	370.036.555	16,4	440.345.111	16,5
AEB	24.409.658	1,0	148.965.042	6,6	193.840.989	7,3
Hego Amerika	166.542.425	6,9	210.994.736	9,4	295.090.191	11,0
Beste batzuk	85.507.342	3,5	123.433.888	5,5	155.592.307	5,8
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.425.609.299</b>	<b>100</b>	<b>2.250.484.862</b>	<b>100</b>	<b>2.673.255.215</b>	<b>100</b>

**13. Edonola ere, nahiz eta barne-merkatuko salmentek behera egin, Gizarte Ekonomiaren ekoizpenaren kanpo-irudia gero eta hobea zen**

Gizarte Ekonomiak kanpoan izandako gorakada argitu beharra dago. Horretarako, barne-fakturazioko datuei erreparatu behar zaie, Gizarte Ekonomiak beste merkatu batzuetan zeukan irudi positiboa areagotzea eragiten baitute. Europan, salmenten susperraldia gertatu zen, baina, barne-merkatuan, fakturazioak joera negatiboa zeukan artean ere.

Enpresa ez-esportatzaileen kasuan, beherakada oso handia zen orduan ere: barne-fakturazioa % 13,6 txikitu zen, 2008-2010 biurtekoan izandakoa baino handiagoa (% 8,0). Enpresa esportatzaileei dagokienez ere, barne-merkatuko salmentak % 5,5 gutxitu ziren, baina, 2008-2010 denboraldian % 25eko beherakada gertatu zela kontuan hartuta, ez zuen eragin handirik izan. Azken batean, barne-merkatuetako fakturazioaren garrantzi erlatiboak behera egin zuen. Beraz, nahiz eta 2008an barne-merkatuko salmentak Europar Batasunean egindakoak baino % 23,8 handiagoak izan, portzentaje hori % 13,5era txikitu zen 2012an. Gainera, bi merkatu horietako fakturazio-datuak txikiagoak izan ziren 2008koak baino.

**Gipuzkoako Gizarte Ekonomiak nagusi izaten jarraitu zuen**





**14. Gipuzkoak hobeto eutsi zion enplegu-beherakadari**

Esportazioen hazkundera eragin zuen hobekuntza lehiakorra industria-kooperatiben portaerarekin zetorren bat, neurri batean; hain zuzen, enpresa horiek egin zuten Gizarte Ekonomiaren kanpo-salmenten % 94,7. Enpresa horien batez besteko tamaina handiagoa da, eta kanpora irteteko ahalmen handiagoa dute. Horiek dira, oraindik ere, Gizarte Ekonomia Euskadiko ekoizpen-ehunetik bereizten duten ezaugarri nagusietako batzuk.



Gizarte Ekonomia industrian dago espezializatuta, eta hori bereziki nabarmena da Gipuzkoa; hain zuzen, lurralde horretan, industriako bost lanpostutatik bat kooperatibetan eta lan-sozietateetan zegoen (% 21,2, eta Bizkaian eta Araban, berriz, % 7,2 eta % 5,7, hurrenez hurren).

#### GIZARTE EKONOMIAREN GARRANTZI ERLATIBOA EAE-KO EKONOMIAN, SEKTOREAREN ARABERA (enpleguaren pisu erlatiboa lurralde historikoaren arabera)




Faktore lehiakor horiei eta beste batzuei esker, Gipuzkoa izan zen 2010-2012 biurtekoan enplegu-datuei nolabait eutsi zien EAEko lurralde bakarra. Horrenbestez, Gipuzkoako Gizarte Ekonomian, enplegua % 0,9 jaitsi zen, eta Araban eta Bizkaian, ordea, % 11,4 eta % 12,8, hurrenez hurren<sup>13</sup>.

Joera horren ondorioz, Gizarte Ekonomiak Gipuzkoako enpresek sortutako enpleguan zeukan garrantzi erlatiboa handitu egin zen: 2010ean, % 9,4koa zen, eta 2012an, % 9,7koa. Araban eta Bizkaian, ordea, Gizarte Ekonomiak lurralde bakoitzeko enpleguan zeukan pisu erlatiboa txikitu ezin zen (% 4,6tik % 4,2ra eta % 4,9tik % 4,5era, hurrenez hurren).


<sup>13</sup> Adierazi behar da beherakadarik handiena Araban gertatu zela; izan ere, Bizkaian, eraginaren zati handi bat lanpostuak Gizarte Ekonomiatik kanpoko forma juridikoetara igaro izanaren ondorio izan zen.

## GIZARTE EKONOMIAREN GARRANTZI ERLATIBOA EAE-KO EKONOMIAN. 2010-2012



Bestalde, Gipuzkoako enpleguaren erresistentzia handiaren ondorioz, lurralde horretako Gizarte Ekonomiako enplegu-proportzioa nabarmen handitu zen: % 48,7koa zen 2010ean, eta % 51,7koa 2012an.

## GIZARTE EKONOMIAKO ENPLEGUAREN LURRALDE-BANAKETA, 2010-2012



### 15. Sortutako BEGd-aren eta esportazioen proportzioa ere handiagoa zen Gipuzkoan

Gipuzkoako Gizarte Ekonomiaren nagusitasuna BEGd-aren terminoetan ere hauteman daiteke. Izan ere, 2010ean, Gipuzkoako lurraldeak sektoreko BEGd-aren % 52,4 pilatzen zuen, eta 2012an, berriz, % 54,9. Kooperatiben arloan, proportzio hori % 58,5ekoa zen.

Hala ere, esportazioetan zuen Gipuzkoako Gizarte Ekonomiak lidergoa, argi eta garbi; gizarte-sektoreak kanpoan egindako salmenten % 70,2 Gipuzkoako Gizarte Ekonomiak egin zuen.






## II. GIZARTE EKONOMIAREN FORMA KLASIKOEN (GEFK) KONTUEN AURRERAPENA, 2013

### 2013: Trantsizio-urtea susperraldia lortzeko bidean?


#### 16. Artean, susperraldiak ez zuen enpleguaren eta jardueraren hazkunde adierazgarririk ekarri, baina zenbait seinale positibo zeuden

Aurreko ataletan aurreratu denez, 2013rako aurreikuspenek erakusten dute joera-aldaketa gertatuko zela enplegua eta salmentak txikitzeko prozesuan. Susperraldiaren ordez, egonkortzeaz hitz egin beharra dago; izan ere, 2013. ekitaldian, enplegu-bolumena % 0,1 eta fakturazioa % 0,3 soilik handituko zirela aurreikusten zen. Gainera, alde negatiboan, industriako eta eraikuntzako enpleguak behera jarraitzen zuen (hurrenez hurren, -% 0,6 eta -% 2,2).

#### EAE-KO GIZARTE EKONOMIAKO ENPLEGUAREN BILAKAERA, 2006-2013




#### FAKTURAZIOAREN BILAKAERA, 2006-2013 (MILAKA EUROTAN)



Dena den, 2013rako emaitzen Aurrerapenean, zenbait datu positibo ere ageri dira. Lurraldearen arabera, Gipuzkoako datuak dira aipatzekoak; izan ere, enplegu- eta fakturazio-datu positiboak eman ditzakeen lurralde bakarra da (enpleguaren % 0,4ko gorakada eta fakturazioaren % 1,3koa).

#### AURREIKUSITAKO FAKTURAZIOAREN ETA ENPLEGUAREN BILAKAERA (lurralde historikoa, jarduera-sektorea eta forma juridikoa), 2012-2013



Neurri batean, bilakaera positibo hori Gizarte Ekonomiako hirugarren sektorean 2013an enplegua hobetu izanarekin dago lotuta (% 0,8).

Beste elementu hau ere azpimarra daiteke: 2013ko aurreikuspenetan, enpleguaren dinamika negatiboa lan-sozietate mugatuetan gertatu zen bereziki, nahiz eta fakturazioa lan-sozietate guztietan txikitu.

## 17. Ezezagun nagusiak

Gizarte Ekonomiaren adierazle ekonomiko nagusiak 2014an susper daitezke, baina gainditu egin beharko da Euskadiko kooperatibismoaren industria-erreferentzia izan den Fagor Electrodomésticos 2013. ekitaldiaren amaieran itxi behar izana. Gainera, Gizarte Ekonomiako industriaren arloan, produktibitate-adierazleak okerrera ari dira egiten. Esate baterako, enplegatutako pertsona bakoitzeko BEGd-a 54.773 eurotik 53.001 eurora jaitsi zen 2010etik 2012ra bitartean. Bestalde, aipatu beharreko beste alderdi batzuen arabera, zor-ratioak handi samarrak dira Gizarte Ekonomiaren zenbait adarretan edo forma juridikotan.



Alderdi positiboan, aipatzekoa da EAeko kooperatibek erakutsitako erreakzio-ahalmen handia; izan ere, 2010etik 2012ra bitartean, nabarmen handitu dira haien esportazioak. Kooperatiba horien kanporako irekiera-maila % 7,5 handitu da 2008az geroztik; hain zuzen ere, 2008an, esportazioek % 26,0ko pisua zuten fakturazioan, eta 2012an, berriz, % 33,5ekoa. Hazkunde horrek neurri batean konpentsatu du barne-merkatuan eta Europako merkatuan izandako beherakada.

Halaber, azpimarratu behar da zer aurrerapen gertatu diren Gizarte Ekonomiako finantza-sistema berrantolatzean. Euskadiko zein Estatuko ekonomietan bezala, Gizarte Ekonomian ere bat-egiteak gertatu dira finantza-arloan, eta horren ondorioz, finantza-erakunde gutxiago daude merkatuan. Prozesu hori dela eta, kreditu-aktiboak onbideratu egin dira, eta horrek oinarriak finka ditzake jarduerak eta enpleguak epe ertainean hazkunde iraunkorra izan dezaten.

Eskuarki, prozesu horiek on egin diote zerbitzu-sektorearen produktibitateari, eta esate baterako, sektore horretan enplegatutako pertsona bakoitzeko BEGd-ak gora egin du: 2010ean, 41.648 eurokoa zen, eta 2012an, oster, 43.620 eurokoa.






### III. GIZARTE EKONOMIAK KRISIARI AURRE EGITEKO ESTRATEGIAK ETA GIZARTE EKONOMIA KLASIKOAREN KUDEAKETA-TRESNAK

#### 18. Gizarte Ekonomiako enpresen erdiek soldatak edota pertsonala doitzeko prozesuak egin dituzte azken bi urteetan

2012an, enpresek krisiari aurre egiteko erabilitako estrategiak aztertzen ahalegindu da Gizarte Ekonomiaren Estatistika. Egiazta daiteke testuinguru horretan, 2010etik 2012ra bitartean, Gizarte Ekonomiako enpresen % 50ek pertsonala eta ordutegia edo soldatak doitzeko neurriren bat hartu duela (hurrenez hurren, % 36,9 eta % 35,3, enpresek bi doikuntza-estrategia horietako bakoitza erabiltzeari dagokionez).

#### KRISIAREN AURREAN NEURRIAK HARTU DITUZTEN ENPRESEN EHUNEKOA, 2012 (%)




Soldata-doikuntzak egin dituzten enpresetan, aipatzekoak dira hileko ordainsaria txikitu dutenak (% 28,8) eta langileen aparteko ordainsariak txikitu edo kendu dituztenak (% 19,5).


Orobat, deigarriak dira enplegu-doikuntza paraleloak: enpresen % 23k enplegu-murrizketa egin du (lanpostuen amortizazioa). Enpresen % 9,6k lanaldia txikitzea erabaki du, eta % 8,6k langileek aurretiko erretiroa hartzeko neurriak hartu ditu. Beste ildo batean, enpresen % 7,2k lanaldia luzatzea erabaki du, eta % 6,5ek egutegi mugikorra erabiltzea.

## SOLDATA- EDOTA PERTSONAL-DOIKUNTZAK EGIN DITUZTEN ENPRESEN EHUNEKOA, 2012 (%)

### SOLDATA-DOIKUNTZA




### PERTSONAL-DOIKUNTZA



Soldata eta pertsonala doitzeko politiken aurrean, kooperatiben arteko lankidetzak-akordioak egin dituzten enpresen proportzioa askoz txikiagoa da; hain zuzen, enpresa guztien % 6,7. Enpresen % 4 inguruk hartu dituzte langileak hartzeko edo birkokatzeak kooperatiben arteko akordioak. Bestalde, Gizarte Ekonomiako enpresen % 3,4k soilik kapitalizatu dituzte bazkide kolektiboen ekarpenen interesak.

## KOOPERATIBEN ARTEKO LANKIDETZA-AKORDIO SOLIDARIOAK EGIN DITUZTEN ENPRESEN EHUNEKOA, 2012 (%)





## 19. Oro har, Gizarte Ekonomiako enpresek aurrera egiten dute, enpresen kudeaketa eta antolaketa profesionalizatzeari buruzko adierazleei dagokienez

Gizarte Ekonomiako enpresek kudeaketa-tresnak (kudeaketa-plana, prestakuntza-plana eta plan estrategikoa) erabiltzeari buruzko adierazle orokorrek nolabaiteko egonkortasuna adierazi zuten 2010etik 2012ra bitartean. Dena den, adierazleak tamainaren arabera aztertuz gero, ikus daiteke tresna horien erabilera-maila hobetzeko joera zegoela.

Gainera, enpresa-kudeaketaren formalizazioa gero eta handiagoa da; izan ere, kudeaketa-tresna horiek etorkizunean erabiltzeko joera handiagoa zegoen 2010ean baino. Hortaz, aurrerapen geldoa da, baina oso nabarmena, nahiz eta datu orokorretan apur bat ezkutatuta geratu, enpresa txikiek 2012an garrantzi erlatibo handiagoa izan baitzuten.

### KUDEAKETA-TRESNEN ERABILERA ENPRESAREN TAMAINAREN ARABERA, 2012 (tresna horiek dituzten enpresak, %-tan)

	GUZTIR A %	6 langile baino gutxiago %	6-15 langile %	16-50 langile %	51-100 langile %	101-200 langile %	201-500 langile %	500 langile baino gehiago %
Barne Erregimeneko Arautegia	38,2	24,2	37,3	73,4	77,8	100,0	92,3	100,0
Kudeaketa Plana	33,2	18,0	30,6	72,4	86,2	92,5	93,8	83,7
Prestakuntza Plana	47,4	33,3	51,2	78,5	85,9	100,0	100,0	83,7
Plan Estrategikoa	25,8	11,8	23,0	57,2	81,8	92,5	88,0	83,7
Lanpostuak baloratzeko eskuliburua	29,2	15,9	30,3	58,9	62,2	96,2	93,3	100,0

### KUDEAKETA-TRESNAK ERABILTZEKO JOERA ENPRESAREN TAMAINAREN ARABERA, 2012

	GUZTIR A %	6 langile baino gutxiago %	6-15 langile %	16-50 langile %	51-100 langile %	101-200 langile %	201-500 langile %	500 langile baino gehiago %
Barne Erregimeneko Arautegia	15,6	4,9	27,4	17,0	47,3	0,0	0,0	100,0
Kudeaketa Plana	50,1	62,2	34,7	45,3	26,4	50,0	46,8	100,0
Prestakuntza Plana	30,0	26,5	27,8	41,4	26,3	0,0	46,8	100,0
Plan Estrategikoa	44,8	43,8	49,1	44,1	26,4	50,0	0,0	100,0
Lanpostuak baloratzeko eskuliburua	22,1	11,0	21,2	48,7	26,3	0,0	53,2	100,0

Oinarria: Tresna horietakoren bat ez duten enpresak baina hurrengo 2 urteetan dokumentuak/tresnak erabiltzen hasia aurreikusten dutenak.

Gizarte Ekonomian, kudeaketa-tresnak gero eta hedatuago dauden heinean, hauek ere egiten dute aurrera:

- Laneko arriskuak prebenitzeko sistemak (% 83,8tik % 85,8ra). Hain zuzen, oso aurrerapen handia gertatu da 15 langiletik beherako enpresetan (% 72,4tik % 77,9ra).
- Ingurumenarekin lotutako jarduerak (% 47tik % 54ra). 50 langile baino gutxiago dituzten enpresetan, aurrerapena oso handia izan da 2010. ekitaldiarekin alderatuta.

Prestakuntza kooperatiboa ematen duten enpresen ehunekoak % 30aren inguruan egonkoritu bada ere, datuek aditzera ematen dute enpresa txikietan hobekuntza orokorrak gertatuko direla.

## 20. Lankidetzaharremanak egonkoritu dira, eta lankidetzestuagoak (Joint Venture formulak eta bigarren mailako kooperatibak) gutxiagotu egin dira

Lankidetzaharremanak ezartzen dituzten enpresen ehunekoak bere horretan jarraitzen du, aurrerapen txiki batekin (2010ean, % 29,4 eta 2012an, % 30,5). Aurrerapen hori lotuta dago kooperatibek Gizarte Ekonomian duten pisu erlatibo handiagoarekin. Izan ere, lankidetzarako joera erlatibo handiagoa duten erakunde kooperatiboetan, lankidetzaharremanen adierazlea ez da apenas aldatzen (% 39koa 2012an, eta % 38,9koa 2010ean).

### GIZARTE EKONOMIAKO ENPRESEN LANKIDETZAHARREMANAK FORMA JURIDIKOAREN ARABERA, 2012


	Guztira %	Koop.Elk. %	Lan-sozietate anonimoak %	Lan-sozietate mugatuak %
Lankidetzaharremanak ezartzen dituzte	30,5	38,9	9,8	18,4

Bestalde, 2010-2012 denboraldian, Gizarte Ekonomiako enpresen arteko lankidetzamotarik garatuenen kopuruak behera egin zuen. Horrenbestez, Joint Venture formulen eta bigarren mailako kooperatiben kopurua txikitu egin zen (hurrenez hurren, % 5,2tik % 1,8ra eta % 19,3tik % 15,9ra); aldi berean, EAEtik kanpoko enpresekin lankidetzan aritzeko akordioak ere gutxitu ziren.





### GIZARTE EKONOMIAKO ENPRESEN LANKIDETZA-HARREMANEN IZAERA, 2012 (guztizkoaren gaineko ehunekoa)



Hala ere, datu horien xehetasunak eman daitezke tamainari erreparatuz gero; oro har, 2010etik 2012ra bitartean, lankidetzeta-harremanen kopurua nabarmen handitu zen (salbuespenak salbuespen, hala nola 16-50 langile eta 201-500 langile dituzten enpresetan). Gainera, lankidetzan aritzen diren enpresetan, lankidetzaren esparrua Gizarte Ekonomiako sektore-arlo guztietara zabaltzen da.

### ENPRESEN ARTEKO LANKIDETZA ESTABLEZIMENDUAREN TAMAINAREN ARABERA, 2010-2012 (enpresen %-a, haien tamainaren arabera)

	2010	2012
500 langile baino gehiago	58,3	88,9
201-500 langile	89,5	85,1
101-200 langile	68,2	79,1
51-100 langile	70,2	78,1
16-50 langile	44,2	45,2
6-15 langile	25,2	28,9
6 langile baino gutxiago	17,1	22,4

lido horretan, enpresen arteko elkarteak argi eta garbi areagotzen dira; batik bat, 50 langile baino gutxiago dituzten enpresen artekoak.





## IV. GIZARTE EKONOMIAREN FORMA BERRIAK (GEFB), 2012

### 21. Gizarte Ekonomiaren Forma Berrietan, 1.226 enpresa zeuden 2012an

Gizarte Ekonomiaren Forma Berrietan (GEFB), Gizarte Ekonomiaren Forma Klasikoak (GEFK) osatzen dituzten enpresak sartzen dira. 2012an, Gizarte Ekonomiaren Forma Berrien artean, EAeko 1.226 enpresa zeuden. Hona hemen enpresa horien tipologia: 615 fundazio; onura publikoko 189 elkarte; 42 enplegu-zentro berezi; 78 gizarteratze-enpresa; borondatezko gizarte-aurreikuspeneko 189 erakunde (BGAE); 16 arrantzale-kofradia; eta eraldaketarako 97 nekazaritza-sozietate.

#### GEFB-ETAKO ENPRESA-KOPURUAREN BANAKETA SEGMENTUKA –UNIBERTSOA ETA LAGINA–, 2012 (kopuru absolutuak)

	Fundazioak	Onura Publikoko Elkarteak	Enplegu Zentro Bereziak	Gizarteratze Enpresak	BGAE	Arrantzale Kofradiak	ENS	Guztira
Erakunde-kopurua (unibertsoa)	615	189	42	78	189	16	97	<b>1.226</b>
Erakunde-kopurua (lagina)	316	177	37	60	n.p.	13	15	<b>617</b>

### 22. GEFBen dimentsio ekonomikoa, multzo orokorrarekiko (GEFK + GEFB), % 18,8koa da fakturazioari dagokionez, eta % 31,3koa, enplegu-terminoetan

Gizarte Ekonomian (GEFK + GEFB), GEFBak sektorearen % 18,8tik % 31,3ra bitartean daude, erabiltzen den adierazle ekonomikoaren arabera. Ekarpenik handiena enpleguari dagokio; hain zuzen ere, GEFBetako 26.441 lanpostuak enplegu osoaren % 31,3 dira. Soldata-masa eta BEGd-a % 24 inguru dira, eta fakturazioari dagokionez, datuak apalagoak dira (guztizkoaren % 18,8).

**GIZARTE EKONOMIAREN FORMA BERRIEN MAGNITUDE NAGUSIAK + GIZARTE EKONOMIAREN  
2012KO KONTUAK (kopuru absolutuak eta %-a)**

	<b>GIZARTE EKONOMIA OROKORRA, 2012 Forma Berriak + Kooperatibak, LSA-ak eta LSMak</b>	<b>Forma Berriek OROKORREAN duten pisua, 2012</b>
<b>Enplegua</b>	<b>81.224</b> <sup>14</sup>	31,3
<b>Fakturazioa</b>	<b>10.196</b> milioi euro	18,8
<b>Soldata-masa</b>	<b>2.691</b> milioi euro	24,0
<b>BEGd-a</b>	<b>3.495</b> milioi euro	24,4

**23. Fundazioek eta enplegu-zentro bereziek enplegu-bolumen esanguratsua sortzen dute, lan-sozietateek baino handiagoa**

GEFBetan, enplegua bi kolektibotan pilatzen da: fundazioetan (% 46,6) eta enplegu-zentro berezietan (% 35,4). Fundazioetan, 12.315 lanpostu daude, eta enplegu-zentro berezietan, 9.368 lanpostu; alegia, bi erakunde-mota horiek lan-sozietateen enplegu-maila gainditzen dute (lan-sozietateetan, 7.828 lanpostu daude). Kooperatibek sortutako enpleguaren % 45 inguru osatzen dute.

**GEFB-EN URTEKOTUTAKO ENPLEGU ORDAINDUAREN BANAKETA SEGMENTUAREN ARABERA,  
2012 (kopuru absolutuak eta % bertikalak)**

	<b>Enplegu urtekotua</b>	<b>% ber.</b>
1. Fundazioak	12.315	46,6
2. Enplegu Zentro Bereziak	9.368	35,4
3. Onura Publikoko Elkartek	3.078	11,6
4. Gizarteratze Enpresak	1.252	4,7
5. ENS	248	0,9
6. Arrantzale Kofradiak	90	0,3
7. BGAE	90	0,3
<b>GUZTIRA</b>	<b>26.441</b>	<b>100,0</b>


